

## EPAIMAHAIAREN AZKEN AKTA ONSITE LEHIAKETA MUGAK 2025 – BILBO

Data: 2024ko abenduaren 12a

Lekua: Bilbo

**Epaimahaiburua:** María Arana - Mugak/ Bienalaren bosgarren edizioko komisarioa

### Epaimahaikideak:

- [Concha Fernández Ordoyo](#): Etxebizitzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaría, Eusko Jaurlaritza
- [Javier Martínez Callejo](#): Bilboko Udaleko Hiri Plangintzako zuzendaría
- [Miren Escartín](#): Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Bizkaiko ordezkaritzako kultura-batzordekidea.
- [Ibon Salaberria](#): EHU/UPV arkitektura eskola
- [María Arana](#): Mugak/ Bienalaren komisarioa
- [Clara Hurtado](#): Habic Clusterra

### Sarrera

Mugak/ 2025 ONSITE Lehiaketak, Bilbon duen egoitzan, "**Gazteluak airean, edo, nola eraiki gaur egungo utopia**" leloaren inguruko hausnarketa sustatzea izan du helburu nagusi, jasangarritasuna, berrikuntza eta hiri-ingurunearekin elkarrizketa esanguratsua duten arkitektura iragankorreko proposamenen bidez.

Epaimahaiak, lehiaketaren oinarrien arabera, alderdi hauek baloratu ditu, besteak beste: kalitate arkitektonikoa, tokiarekiko harremana, gaiarekiko lotura, berrikuntza-maila, bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa, eta ingurumen-inpaktua.

Azterketa sakon bat egin eta gogoeta zehatzak egin ondoren, **lehen sari bat, bigarren sari bat** eta **acesit bat** ematea erabaki da. Hauek dira sariak.

### LEHEN SARIA

**Proiektua:** "ETXENOI"

**Saria:** 10.000 € + BEZa

#### Balorazioa

Epaimahaiak "**Etxenoi**" proiektua aukeratu du lehen sariaren irabazle, jasangarritasun, berrerabilpen eta hiri-berroneratzearen oinarriko kontzeptuak inpaktu kontzeptual eta funtzional handiko arkitektura-pabilioi bihurtzeko duen gaitasunagatik.

#### Gaiarekiko lotura

Utopia birsortzailea da "Etxenoi", Lewis Mumford bezalako pentsalariaren gogoetekin bat datorrena. Utopiak proposatzen zituen gizartea eta hiria eraldatzeko, lehendik zeuden materialak berrerabiliz. Proiektu honek arkitektura berrinterpretatzen du erantzukizun kolektiboko ariketa gisa, eta herritarra jartzen du erdigunean, etorkizun iraunkorrako baten eraikuntzan aldatetarako eragile aktibo gisa.

#### Lekuarekiko harremana

Proposamenak Bilboko hiri-testuinguruarekin hitz egiten du, aldamiok eta oihalak erabiltzen baititu hiriko industria-paisaia eta eraikuntza-tradizioa gogora ekartzeko. Haren integrazioak jardura publikoak ahalbidetzen ditu, hala nola erakusketak eta tailerrak, eta lekuaren identitatea errespetatzen duen espazio funtzionala eskaintzen du.

#### Berrikuntza eta materialtasuna

Proposamena berrerabilitako aldamioren erabilerearengatik nabarmentzen da, arkitekturatik ekonomia zirkular baterako trantsizioa sinbolizatzen baitute. Epaimahaiak positiboki baloratzen du ikuspegi horrek aztarna ekologikoa minimizatzen duela, eta, aldi berean, egitura moldagarria eta funtzionala eskaintzen duela. Etxeko irudiak ikusteko aukera ematen duten oihalak sarteak alderdi intimo eta gogoetatsua eransten dio pabiloiari.

#### Jasangarritasuna eta bideragarritasuna

"Etxenoi"-ren ezaugarria material berrien kontsumo baxua da, dauden elementuak ahalik eta gehien berrerabiliz. Gainera, bere diseinuak egokitzeko aukerak eta bere bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa indartzen duten hobekuntzak planteatzen ditu. Arkitektura arduratsuen erudia da proiektua, baliabideen aprobetxamendua sustatzen duena eta hiri-eremuko jasangarritasunari buruzko hausnarketa sustatzen duena.

#### Ondorioa

Epaimahaiaren ustez, proiektuaren edukiak eta edukitzailak proposamen integral eta eraldatzailea eskaintzen dute, herritarrentzat esperientzia esanguratsua sortzeko gai dena. "**Etxenoi**"-ek Bienalaren gaiari erantzuteaz gain, gaur egun utopia bat eraikitzeko moduari buruzko ikuspegi argia eta irisgarria eskaintzen du.

## BIGARREN SARIA

Proiektua: GAVIONES EN EL AIRE

Saria: 1.000 € + BEZa

### Balorazioa

Bigarren saria "Gaviones en el Aire" proiektuari eman diote, materialen berrerabilpenean duen sormen-ikuspegiagatik eta Bilboko iragan industriala utopia garaikideen motor gisa berrinterpretatzeko duen gaitasunagatik.

Pabiloiaren iragazkortasun espaziala nabarmendu du epaimahaiak, utopien aniztasun eta konplexutasunaren inguruan hausnartzera gonbidatzen baititu bisitariak.

Egitura nagusi gisa kaioiak erabiltzeak ukigarriaren eta ukiezinaren arteko elkarrizketa sinbolizatzen du, eta utopiek, abstraktuak izan arren, presentzia fisiko zirrargarria izan dezaketela dioen narratiba indartzen du.

## ACCESITA

Proiektua: GARDEN ON THE WAY

Saria: Aitorpen sinbolikoa

### Balorazioa

Accesita "Garden on the Way" proiektuari eman diote, bere proposamen erradikal eta apurtzaileagatik. Aztarna ekologiko txikia du proposamenak, eta hiriaren birnaturalizazioari buruzko hausnarketa eragiteko gaitasuna.

Epaimahaiak bereziki baloratzen du haren sinbolismoa eta naturaren eta industriaren arteko mugak zalantzan jartzeko gaitasuna. Esku-hartzea egituratzen duen atoi inklinatuak bidaia kontzeptual bat egitera gonbidatzen du utopia baterantz, non jaitsierak eta igoerak ideia eraldatzaileak bilatzeko eta gauzatzeko betiereko prozesua irudikatzen duten.

## Ondorioa

Bilboko ONSITE lehiaketaren edizio honetan aurkeztutako proposamenen kalitate eta aniztasun kontzeptual altua eskertu du epaimahaiak. Hautatutako proiektuek utopiari buruzko hausnarketa proposatzen dute, iraunkortasunaren eta hiri-berroneratzearen ikuspegitik. Esku-hartzeek hiriko memoria industrialarekin hitz egiten dute, eta egungo hiri-sarea nola berrerabili eta eraldatu planteatzen dute, etorkizun jasangarriagoak eraikitzeko. Ikuspegi horrek esperimantazio-laboretegi bihurtzen du Bilbo, eta arkitektura iragankorrak irtenbide ukigarriak eta kritikoak ematen ditu erronka garaikideei aurre egiteko. Bereziki, "Etxenoi" proiektu irabazlea nabarmendu behar da funtzionaltasuna, jasangarritasuna eta ingurumenarekiko errespetu eta ekitate handiagoko etorkizuna eraikitzeko erantzukizun kolektiboari buruzko mezu argia konbinatzen dituen proposamen eredugarri gisa.

Aktaren jaulkipen data: 2024ko abenduaren 12a